

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 2945

*483/2019 EBAZPENA, ekainaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez onetsi dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen Lanbide-taldeko Mediku kategorian (Ospitaleko Pediatriako Mediku FEren lanpostu funtzionala, Profila: Neonatologia) lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren bitartez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa eskuratzeko 2016. eta 2017. urteetan deitutako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiaren otsailaren 7ko 115/2018 Ebazpenaren bidez onetsi ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen Lanbide-taldeko Mediku kategorian (Ospitaleko pediatriako mediku FEren lanpostu funtzionala) lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak (EHAA, 35. zk., 2018ko otsailaren 19koa). Bertan, I. eranskinaren 1.1 atalean, deialdiaren xede diren destinoei buruzkoan, honakoa ezarri zen: «Deialdi honen xede dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen Lanbide-taldeko Mediku kategoriako (Ospitaleko pediatriako mediku FEren lanpostu funtzionala) destinoak, II. eranskinean jasotakoak. Ospitaleko Pediatriako mediku FE deialdiari dagozkion destinoetako batzuek, II. eranskinean jasotakoaren artean, deialdi espezifikoen bitartez aldaketak izan ahalko dituzte Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren Ebazpen bidez.»

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 545/2018 Ebazpenaren bitartez, 2016-2017 enplegu publikoko eskaintzari dagozkion fakultatibo mediko eta teknikoen deialdien barruan dauden ezagutza espezifikodun lanpostuak zehazten dira.

Ebazpen horren II. eranskinean zehazten denez, txanda askean deitutako 26 destinoetatik jarraian zehaztutakoak deialdi espezifikokoak dira:

– 2 destino. Profila: Neonatologia. Araba ES1a.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko, beharrezkoa da kategoria bakoitzeko destinoen deialdia arautuko duten oinarri espezifikoak argitaratzea, eta bertan zehaztea eskaintako destino bakoitzaren xehetasunak.

Horregatik, kontuan izanda Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legea, ekainaren 26koa; Osasun zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren 55/2003 Legea, abenduaren 16koa; Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatutuaren testu bategina onartzen duen 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa; Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen lanpostu funtzionalak arautzen dituen 186/2005 Dekretua, uztailaren 19koa; Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, eta indarrean dauden eta aplikagarriak diren gainerako xedapenak.

## EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauei dagozkien hautaketa-probetarako deia egitea.

Bigarrena.– I. eranskinean jasotako oinarri espezifikoak onartzea; horien bidez arautuko da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Lanbide-taldeko Mediku kategorian (Ospitaleko Pediatriako Mediku FEren lanpostu funtzionala, Profila: Neonatologia) lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesua.

Hirugarrena.– Ebazpen honekin batera argitaratutako II. eranskinean eskainitako destinoen zerrenda onartzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 115/2018 Ebazpenaren III. eranskinean jasotako merituen baremoa onartzea.

Bosgarrena.– Kategoriako gai-zerrenda onartzea, Ebazpen honen IV. eranskinean jasotakoa.

Seigarrena.– Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezartzen dutenaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa jar dakioko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari hilabeteko epearen barruan, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 4a

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN LUIS DIEGO CASALS.

## I. ERANSKINA

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZERBITZU SANITARIOETAKO  
ERAKUNDEETAN DESTINOA DAUKATEN FAKULTATIBO MEDIKO ETA  
TEKNIKOEN LANBIDE-TALDEKO MEDIKU KATEGORIAN (OSPITALEKO  
PEDIATRIAKO MEDIKU FE-REN LANPOSTU FUNTZIONALA, PROFILA:  
NEONATOLOGIA) LOTURA ESTATUTARIO FINKOA ESKURATZEKO  
HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRI EZPEZIFIKOAK

## 1.– Deialdiko destinoak.

Deialdi honetan sartzen dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen Lanbide-taldeko Medikuko kategoriako (Ospitaleko Pediatriako mediku FEren lanpostu funtzionala, Profila: Neonatologia) destinoak, II. eranskinean jasotakoak.

## 2.– Izangaien eskakizunak:

Honen bidez araututako prozesuan parte hartzeko, izangaiek, oinarri orokorretan aurreikusitako salbuespenak kenduta, aurkezteko epearen azken egunean bete beharreko eskakizunaz gain, oinarri orokorretan jasota daudenak eta kasuan kasu esleitzen den destinoa jabetzan hartu arte bete beharrekoak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 115/2018 Ebazpenean ezarritako eskakizunak ere bete beharko dituzte; honakoak, hain zuzen:

a) Oinarri orokorretako 6.2.c) atalean adierazitakoari jarraiki, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak igorritako Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatu titulua eta eskatutako espezialitatea, eskuratzen den lanpostu funtzionalean aritzeko eskatzen dena, Osakidetza Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinaren arabera.

b) Kasu orotan bete beharko dira eskuratu nahi den lanpostuaren eskakizunak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren arabera, bai eta indarrean dagoen legeriak ezarritako beste edozein.

c) Eskabideak aurkezteko epearen barruan, izena emateko eskubideengatik dagokion tasa ordaindu izana, eskainitako destinoen Lanbide-taldearen arabera:

A1 taldea (A taldea zena): 25 euro.

## 3.– Oposizio-lehiaketaren nondik norakoa.

## 3.1.– Oposizioaldia.

## 1.– Oposizioaldian ariketa hauek egin beharko dituzte:

a) Lehenengo ariketa: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (HAEE) egokituko zaio proba teorikoa egitea, eta epaimahaiari iraupena zehaztea. Idatzizko proba izango da; zehazten den gehieneko denbora-tartean, izangaiek gai-zerrenda espezifiko, orokor eta komuneko IV. eranskineko programako gaiei buruzko galdetegi bat erantzun beharko dute.

Esandako Eranskinean, gainera, proba prestatzeko beharrezkoa den bibliografia agertzen da. Argitaratutako gai-zerrenda eta bibliografia lotesleak izango dira ariketak egiterakoan.

b) Bigarren ariketa: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari (HAEE) egokituko zaio bigarren ariketako kasu praktikoak egitea eta epaimahai kalifikatzaileari bigarren ariketa osatuko duten

kasuak hautatzea HAEEK egindakoen artean, eta azkenean zehazteko ausazko elementu bat sartuko da. Probaren egunean bertan HAEEK egindako kasu praktikoak emango dizkio epaimahai kalifikatzaileari eta epaimahai kalifikatzaileak bigarren ariketa osatuko dutenak egunean bertan aukeratuko dituzte. Ariketa horretan kasu praktikoak jasoko dira, galderen eta aukeratzeko erantzunen bidez.

Ariketak destinoen funtzio espezifikoekin lotuta egongo dira eta haien helburua izangaiek destino horietan aritzeko dituzten gaitasunak, abileziak, ezagutzak eta ahalmen profesionala baloratzea izango da.

Hainbat erantzun izango dituzten galdetegi batez osatutako probetan, erantzun okerrekin ez dute penalizaziorik ekarriko.

Deitzen diren Mediku Fakultatibo Espezialisten lanpostu funtzional ezberdinetako Mediku kategoriarako, oposizioaldian bi ariketa egingo dira proba berean; ariketa teoriko bat eta praktiko bat, biak eskaintako destino ezberdinetako funtzio espezifikoekin lotuta. Probaren azken emaitza bi ariketen batez besteko haztatua izango da, % 65 proba teorikoarena eta % 35 ariketa praktikokoarena. Aurretik aipatutakoa ez zaie Mediku Fakultatibo Espezialisten hautatze-prozesuei aplikatuko, dagokien oinarri espezifikoen arabera, oposizioaldia ariketa bakarraz osatuta badago. Ondorio horietarako, batez besteko haztatua formula honekin lortuko da:

$$MP = \frac{(N1 \cdot 65) + (N2 \cdot 35)}{65 + 35}$$

MP: batez besteko haztatua

N1: proba teorikoaren nota (*gehienez 100 puntu*)

N2: proba praktikokoaren nota (*gehienez 100 puntu*)

Oposizioaldia gaindituzat emateko, bi ariketen batez besteko haztatua gutxienez 100 puntutik 50 puntukoa izan beharko da.

3.2.– Izangaien behin-behineko zerrenda (oinarri orokorren 14. atalean aurreikusitako puntuazio ordenan) argitaratu ondoren, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 115/2018 Ebazpenean xedatutakoari jarraiki, izangai proposatuek, I. eranskinen azaltzen direnek, 14.2 oinarrian zerrendatutako dokumentazioaz gain, honako hauen fotokopia konpultsatua ere aurkeztu beharko dute:

– Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak igorritako Medikuntza eta Kirurgiako lizentziatu tituluaren eta espezialitatearen tituluaren fotokopia konpultsatua edo notario-lekukotza, kasuan kasuko lanpostu funtzionalean aritzeko eskatzen denarena, Osakidetza Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinaren arabera.

3.3.– Lehiaketaldia.

Egiaztatutako merituen otsailaren 7ko 115/2018 Ebazpenaren III. eranskinen merituen baremoren arabera balioetsiko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera.

4.– Epaimahai kalifikatzailea.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 5eko 103/2018 Ebazpenaren 18. oinarrian jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira. Ebazpen horren bidez, 2016. eta 2017. urteetan deitutako Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren, espezifikotasun hauekin:

#### 4.1.– Izendapena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak hautaketa-prozesua kalifikatuko duen epaimahaia izendatuko du.

#### 4.2.– Osaera.

Epaimahaikide guztiek herri administrazioetako edo osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioak edo estatutupeko finkoak, edo Osasun Sistema Nazionalari lotutako zentroetako lan-kontratuko langileak izan beharko dute, baldin eta haien lanpostuan edo kategorian jarduteko hautaketa-prozesuko kategorian sartzeko eskatzen den maila akademiko bera edo goragokoa eskatzen bada.

Epaimahaikideak zozketa bidez aukeratuko dira deitutako lanpostuetako edo horien kategorietako espezialitatearen eta arlo espezifikoaren profesionalen artean.

Epaimahaiko idazkaria izango den pertsona zozketa bidez ere hautatuko da, Osakidetzan goi-mailako teknikarien taldean karrerako funtzionarioak, estatutupeko finkoak edo lan-kontratudunak diren langileen artean, baldin eta Zuzenbideko lizentziatura badute.

Zozketa bidez hautatutako Epaimahaikideen artean, identifikatuko dira, zozketa bidez ere, zein izango diren epaimahaikide titularrak, epaimahaikide ordezkioak eta Epaimahaiko burua eta horren ordezkioa.

Behin betiko epaimahaikideak aukeratzeko zozketa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian jendaurreko ekitaldian egingo da, 10 egun balioduneko epean, ebazpen honetan aurreikusitako izena emateko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Horren eguna eta ordua Osakidetzako web orriaren bidez iragarriko da.

Epaimahaiaren osaketak gizonezko eta emakumezkoen arteko ordezkapen orekatua bermatuko du, eragozten duten arrazoi objektiboak egon ezean; izan ere, gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokia duten pertsonak osatuko dute eta bere kideek inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak beteko dituzte.

Epaimahai kalifikatzailearen kide guztiak maila indibidualean jokatuko dute.

#### 4.3.– Jarduteko arauak.

Epaimahaiak bere jarduna Sektore Publikoko Erregimen Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15.etik 24.era bitarteko artikuluetan ezarritako arauari egokituko die.

Epaimahai kalifikatzailearen kideek HAEEK antolatu eta emandako prestakuntza-jardunaldi bat jasoko dute, epaimahaikide gisa edukiko dituzten atazak, jokabide-arauak eta betekizun etikoekin lotuta. Era berean, epaimahai kalifikatzailearen kide guztiek errespetatu behar dituzten betekizun etikoak eta jokabide-arauak jasotzen dituen dokumentu bat sinatu beharko dute.

Nolanahi ere, epaimahaiburuaren aginduz bilduko da, idazkariak deituta, eta eratu ahal izateko epaimahaiburuak eta idazkariak, edo horien ordezkioak, eta gutxienez kideen erdiak bertaratu beharko dute.

Epaimahaikideak, behar bezala deitu bazaie, justifikatu gabe saio eta prozedura-ekitaldi ezberdinetara bertaratu ez badira, baita osatzeko saiora ere, indarrean dagoen araudiari dagokion erantzukizuna izango dute.

Erabakiak botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaikide guztiek, idazkariak barne, hitza eta botoa izango dute.

## II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA HONETAN: MEDIKUA  
(OSPITALEKO PEDIATRIAKO MEDIKU FE-REN LANPOSTU  
FUNTZIONALA, PROFILA: NEONATOLOGIA)

Osakidetzaren zuzendari nagusiaren maiatzaren 15eko 545/2018 Ebazpenaren II. eranskinean xedatutakoaren arabera, destino hauetarako deia egiten da:

Txanda askeko deialdia: 2 destino.

– 2 destino. Profila: Neonatologia. Araba ESla.

### III. ERANSKINA

Merituen baremoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 7ko 115/2018 Ebazpenaren III. eranskinean dago jasota. Horren bidez onetsi dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa daukaten Fakultatibo mediko eta teknikoen Lanbide-taldeko Mediku kategorian (Ospitaleko Pediatriako Mediku FEren lanpostu funtzionala) lotura estatutario finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak.

## IV. ERANSKINA

## OSPITALEKO PEDIATRIAKO MEDIKU FAK. ESP., PROFILA: NEONATOLOGIA

## I.– OSPITALEKO PEDIATRIAKO GAI-ZERRENDA OROKORRA

1.– Neonatologia: Garaiko eta garai aurreko jaioberria. Ezaugarri anatomikoak eta fisiologikoak. Jaioberriak baloratzea eta artatzea. Zainketa orokorrak eta arazo kliniko nagusien zainketak.

2.– Nutrizioa eta Hazkundera: Amagandiko edoskitzea. Edoskitze artifiziala. Haur osasuntsuaren elikadura. Nutrizio-egoeraren balorazioa. Deshidratazioaren eta malnutrizionaren tratamendua.

3.– Garapen fisiko eta mentalaren nahasmenduak. Hazkunderaren eta pubertaroko garapenaren aldagai normalak eta asaldurak. Garapen psikomotorea eta desgaitasun intelektuala. Haurren garun-paralisia. Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua. Garapenaren nahasmendu orokorra eta autismoa.

4.– Alergia, Immunologia eta Infektologia: Anafilaxia, dermatitis atopikoa, urtikaria eta digestio-alergia. Egoera immunitarioaren balorazioa. Patologia infekziosoaren orientazio diagnostikoa eta terapeutikoa: shock septikoa, meningitisa, entzefalitisa, amigdalitisa, adenitisa, pneumonia, hepatitisa, artritisa, osteomielitisa, gernu-infekzioa eta gaixotasun exantematikoak.

5.– Prebalentzia handiena duen patologia akutua: Gorakoak, beherakoa, abdomeneko mina, apendizitisa eta hepatitisa. Errinitisa, otitisa, laringitisa eta bronkiolitis akutua. Glomerulonefritisa, hematuria eta proteinuria. Zefaleak eta sukar-konbultsioak.

6.– Patologia kronikoari heltzea: Gaixotasun zeliakoa. Bronkioetako asma. Diabetes mellitusa. Obesitatea. Sortzetiko kardiopatiak. Bihotz-gutxiegitasuna. Giltzurrun-gutxiegitasuna. Anemiak.

7.– Pediatria soziala eta Osasun Publikoko programak. Haurren kontrako tratu txarrak. Istripuak eta intoxikazioak. Jaioberrien baheketa. Txertaketak haur osasuntsuan eta arrisku-taldeetan.

8.– Alderdi orokorrak eta antolaketakoak pediatriako arretan. Asistentziako kalitatea eta etika. Informazioa eta baimen informatua. Pediatriako pazientearen segurtasuna. Pediatriako irakas-kuntza, etengabeko prestakuntza eta ikerketa. Lege-alderdiak, haurraren eskubideak eta babesaren haurtzaroan.

## II.– NEONATOLOGIAKO GAI-ZERRENDA ESPEZIFIKOA

1.– Medikuntza fetala. Fisiologia fetala eta umetoki barneko hazkundera. Amaren patologiak fetuarengan eta jaioberriarengan duen ondorioa. Oligoamniosa, Hidramniosa. Jaio aurreko diagnostikoa: metodo biokimikoak, biologikoak eta irudi bidezkoak. Sortzetiko malformazioak. Fetuaren hidropesia. Fetuaren ongizatearen ebaluazioa. Profilaxia eta terapia fetuaren bizian zehar.

2.– Jaioberriaren balorazioa eta jaio-ondoko berehalako epealdirako tratamendua. Haurdunaldiarekin eta erditzearekin lotutako nahasmenduen ondorioa. Preeklanpsia eta lotutako beste gaixotasun batzuk. Konplikazio obstetrikokoak. Erditze anizkoitzak. Amaren droga kontsumoa eta jaioberriaren abstenentzia sindromea. Hasierako egokitzen mekanismoak. Arrisku handiko jaioberria: aurea hartzea eta tratamendua. Jaioberria garraiatzea.

3.– Jaioberriaren balorazioa. Zainketak eta hasierako maneia jaioberri osasuntsuetan, garai aurrekoetan, pisu gutxikoetan edo jaiotzean malformazioak dituztenetan. Jaioberriaren hiperbilirubinemiaren diagnostiko diferentziala. Jaioberrietan modu goiztiarrean azaleratzen diren arazo genetikoak. Aholkularitza genetikoak familiei.

4.– Prematuritatea. Adin gestazionalerako pisu txikia duen jaioberria. Adin gestazionalerako pisu handia duen jaioberria. Helduondoko jaioberria. Polimalformazioak dituen jaioberriaren aurreko jarrera. Sindrome malformatibo nagusiak.

5.– Amagandiko edoskitzea. Jaioberriaren elikadura egoera berezietan. Nutrizio enterala. Nutrizio parenterala. Likido eta elektrolitoen kontrola.

6.– Nahasmendu endokrino-metabolikoak jaioberrietan. Hipogluzemia e hipergluzemia. Kalzioaren, fosforoaren eta magnesioaren nahasmenduak. Panhipopituitarismoa. ADHaren jariatze desegokiaren sindromea. Funtzio tiroideoaren nahasmenduak. Giltzurrun gaineko patologia. Malformazio genitalak eta garapen sexualaren alterazioak. Metabolismoaren sortzetiko akatsak. Jaioberriaren hiperamoniemiaren maneia.

7.– Digestio-bidearen, gibelaren, pankrearen eta behazun-hodiaren malformazioak. Gastroskisia eta onfalozelea. Enterokolitis nekrosatzailea. Hepatopatiak. Gibel-hutsegite akutua. Kolostasia.

8.– Arnasbidearen nahasmenduak eta arnas patologia. Mintz hialinoen gaixotasuna, takipnea iragankorra, pneumotoraxa, biriketako hipertentsioa, biriketako odoljariora, enfisema interstiziala, mekonioaren aspirazioaren sindromea, pneumonia, sortzetiko malformazioak. Arnasketa lagundua eta aireztapen mekanikoa. Oxigenoterapia, CPAP, IPPV, maiztasun handia eta oxido nitriko inhalatua. Gorputzez kanpoko mintzaren bidezko oxigenazioa. Bronkio-biriketako displasia eta biriketako gaixotasun kronikoa.

9.– Nahasmendu kardiobaskularrak. Bihotz-murmurioa duen jaioberriaren ebaluazio diagnostikoa eta tratamendua. Sortzetiko kardiopatiak. Bihotz-gutxiegitasuna. Bihotz-eritmoaren nahasmenduak. Biriketako hipertentsio iraunkorra. Shocka jaioberrietan. Nahasmendu kardiobaskularren farmakologia jaioberrietan.

10.– Nahasmendu hematologikoak. Anemia. Polizitemia. Nahasmendu leukozitarioak. Diatesi hemorragikoa. Tronbozitopenia. Tronbosia. Koagulopatiak. Alterazio aloimmuneak eta autoimmuneak. Hemoderibatuen erabilera. Exanginotransfusioa.

11.– Jaioberriaren gaixotasun infekziosoak. Infekzio arriskua duen jaioberriaren balorazioa. Plazentan zeharreko infekzioak. Transmisio bertikaleko infekzioak. Komunitatean hartutako infekzioak. Jaioberriaren antibioterapia. Infekzio bakterianoak, birikoak, fungikoak, parasitarioak. Infekzio nosokomiala. Prebentzio-neurriak.

12.– Jaioberriaren balorazio neurologikoa. Garaiko eta garai aurreko jaioberriaren garapen psicomotorearen jarraipena. Nerbio-sistemaren sortzetiko malformazioak. Asaldura neuromuskularrak. Jaioberriaren konbultsioak. Garezur barneko odoljariora. Jaiotza inguruko asfixia. Substantzia zuri eta griseko lesioak. Hodi neuralaren akatsak. Entzefalopatia hipoxiko-iskemikoa. Hipotermia kontrolatua. Neurofisiologia eta irudi azterketak Nerbio-sistema Zentralerako.

13.– Giltzurrun-gutxiegitasuna: ebaluazio diagnostikoa eta terapeutikoa. Sistema nefrourologikoaren malformazioak. Hipertentsio arteriala. Gernubideko infekzioak. Dialisia, hemofiltrazioa.

14.– Jaioberrien beste patologia batzuk: lokomozio-aparatuaren nahasmenduak. Hezur-displasiak. Osteogenesi inperfektua. Prematuritatearen osteopenia. Anomalia baskularrak. Larruazaleko asaldurak. Asaldura oftalmologikoak eta entzumenekoak. Prematuritatearen erretinopatia. Tumore gaiztoak jaioberrietan. Larrialdi kirurgikoak. Tratamendu kirurgikoa duten patologien maneia eta zainketak.

15.– Prozedura diagnostikoak, monitorizaziokoak eta terapeutikoak neonatologian. Monitorizazioa. Irudi-teknikak: erradiologia, ekografia, TAC eta RNM. Fototerapia. Exanginotransfusioa. Zundak jartzea, pubis gaineko ziztada, gerriko ziztada eta parazentesi-teknikak. Intubazio trakeala eta toraxeko hodia jartzea. Sarbide baskularrak. Jaioberriaren analgesia eta sedazioa. Medikamentuak ematea. Amari emandako farmakoek fetuan eta jaioberrian dituzten ondorioak.

16.– Jaioberri oso prematuroen eta jaiotzan pisu oso txikia izan dutenen jarraipena egitea. Garapenean laguntzea. Erabakiak hartzea eta dilema etikoak. Jaioberrien zainketa aringarriak.

### III.– GAI-ZERRENDA KOMUNA

1.– Osasun-lanbideen Antolamendurako arau orokorrak. Osasun Sistema Nazionalaren kohe-sioko eta kalitateko xedapen orokorrak.

2.– Osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren arau orokorrak. Esku-bideak eta betebeharrak. Pertsonal estatutario finkoaren izaera lortzea eta galtzea.

3.– Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren Xedapen Orokorrak. Euskadiko Osasun-sistema: Antolamendua eta herritarren eskubide eta betebeharrak. Kontratu-programa. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren konfigurazioa. Zuzendaritza-antolakuntza. Gestio-araubidea. Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren definizioa. Xedeak. Antolaketa gidaria: zerrendatzea. Zuzendaritza Nagusia: sormena. Zerbitzu-erakundeak: lege-aitorpena.

4.– Pertsonen eskubideak eta betebeharrak Euskadiko osasun-sisteman.

5.– Pazientearen autonomia, eskubideak eta betebeharrak, informazio eta dokumentazio klinikoari dagokienez. Informazio sanitariorako eskubidea. Intimitaterako eskubidea. Pazientearen autonomiaren errespetua. Historia klinikoa. Alta-txostena eta bestelako dokumentazio klinikoa. Borondate aurreratuak osasun-eremuan.

6.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digi-talak bermatzeari buruzkoa. Xedapen orokorrak: Legearen xedea eta hildako pertsonen datuak. Datuak babestearen printzipioak. Pertsonen eskubideak.

7.– Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen xedea. Printzipio orokorrak. Jazarpen sexista.

8.– Estrategiak: Osasun Sailaren Ildo Estrategikoak 2017-2020. Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020. Osakidetzaren Erronka eta Proiektu Estrategikoak 2017-2020. Pazientearen Segurtasunaren Estrategia Osakidetzan 2017-2020. Arreta Soziosanitarioko Lehen-tasun Estrategikoak 2017-2020.

9.– Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko jardun-eremuak eta neurriak: Osaki-detzan euskararen erabilera normalizatzeko 2. Plana. 2013-2019: Irudia eta Komunikazioa eta Kanpo-harremanak.

### OSPITALEKO PEDIATRIAKO GAI-ZERRENDA OROKORRAREN BIBLIOGRAFIA

1.– Kliegman RM, Stanton BF, St Geme JW, Schor NF, Behrman RE, Nelson. Tratado de pediatría (liburuki). 20. ed. Madril. Elsevier Espainia; 2016. ISBN: 978-84-9113-015-4.

2.– Rudolph CD, Rudolph AM, Hostetter MK, Lister G, Siegel NJ. Pediatría de Rudolph (2 libu-ruki) 21. ed. Madril. Mc Graw-Hill Interamericana de España. 2004. ISBN: 84-486-0605-1.

3.– Cruz Hernández M. Tratado de Pediatría (2 liburuki). 10. ed. Madril. Argitaletxea: Ergón Creación. 2011. ISBN: 978-84-8473-904-3.

#### NEONATOLOGIAKO GAI-ZERRENDA ESPEZIFIKOAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.– Neonatología: Fisiopatología y manejo del RN. G.B. Avery- 5. Ed. Panamericana.
- 2.– Manual de Neonatología. Cloherty y Stark. 8. Ed. Wolters Kluwer.
- 3.– Neonatal Respiratory Disorders. A. Greenough. 2. Argit.: Arnol Ed.
- 4.– Ventilación Neonatal asistida. Goldsmith. 2. Ed gaztelaniaz. Ed Distribuna.
- 5.– Avery Neonatología. Diagnóstico y tratamiento del RN. G. Macdonald, Mary M.K. Seshia. 7. Ed. 2017.
- 6.– Evaluación Neurológica en el RN. A. Garcia-Alix, J. Quero. Ed Diaz Santos.
- 7.– Manual de reanimación neonatal. SEN- 4. Ed. Argit.: Ergon.
- 8.– De guardia en Neonatología. M. Moro, M. Vento. 3. Ed. Panamericana.

#### GAI-ZERRENDA KOMUNAREN BIBLIOGRAFIA

- 1.– 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa. 16/2003 Legea, maiatzaren 28koa, Osasun Sistema Nazionalaren kohesio eta kalitateari buruzkoa.
  - 2.– 55/2003 Legea, abenduaren 16koa, osasun-zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoarena.
  - 3.– 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena. 255/1997 Dekretua, azaroaren 11koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezar-tzen dituenak.
  - 4.– 147/2015 Dekretua, uztailaren 21ekoa, Euskadiko osasun-sistemako pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duena.
  - 5.– 41/2002 Oinarrizko Legea, azaroaren 14koa, pazientearen autonomiari eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrei dagokiena. 7/2002 Legea, abenduaren 12koa, osasun arloko Aurretiazko Borondateena.
  - 6.– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digi-talak bermatzeari buruzkoa buruzkoa. Xedapen orokorrak: Legearen xedea eta hildako pertsonen datuak. Datuak babesteari printzipioak. Pertsonen eskubideak.
  - 7.– 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako dena.
  - 8.– Osasun Sailaren Ildo Estrategikoak 2017-2020.  
[Http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_departamento/eu\\_def/adjuntos/stp/ildo-estrategikoak.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_departamento/eu_def/adjuntos/stp/ildo-estrategikoak.pdf)
- Osasun Plana. Euskadiko Osasun Politikak 2013-2020:  
[Http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes\\_estudio/es\\_pub/adjuntos/plan\\_salud\\_2013\\_2020.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/es_pub/adjuntos/plan_salud_2013_2020.pdf)

Osakidetzaren Erronka eta Proiektu Estrategikoak 2017-2020:

[Http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen\\_gob\\_planes/eu\\_def/adjuntos/PE\\_2017\\_2020\\_web\\_EUS.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/buen_gob_planes/eu_def/adjuntos/PE_2017_2020_web_EUS.pdf)

Pazientearen Segurtasun arloko Estrategia Osakidetzan 2017-2020:

[Http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo\\_estrategia\\_seg\\_paciente/es\\_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020\\_es.pdf](http://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/cinfo_estrategia_seg_paciente/es_def/adjuntos/ESTRATEGIA2020_es.pdf)

Arreta Soziosanitarioko Lehentasun Estrategikoak 2017-2020:

[Http://www.euskadi.eus/soziosanitarioa/-/albiste/2018/arreta-sozio-sanitarioaren-lehentasun-estrategikoak-euskadi-2017-2020/](http://www.euskadi.eus/soziosanitarioa/-/albiste/2018/arreta-sozio-sanitarioaren-lehentasun-estrategikoak-euskadi-2017-2020/)

9.– Osakidetzan Euskararen erabilera normalizatzeko II. Plana 2013-2019.

[Https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_euskera/eu\\_osk/adjuntos/euskararenPlanaEu.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_euskera/eu_osk/adjuntos/euskararenPlanaEu.pdf)